



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK BARRIRO EKIN DEUTSE LEGE BILTZARREKO JARDUERARI, DONEJAKUE BIDEAREN ETA PETRONORREKO ERTEAREN GANEAN EZTABAIDATUZ**

- **Ekonomia Sustatzeko Batzordeak, urte Xacobeoan Bizkaiko Batzar Nagusiek Foru Aldundiari Donejakue Bidea bultzatzeko eskatu deioen Talde Berezia-PP Bizkaiaren arauz besteko proposamen bat ezetsi dau.**
- **Bizkaiko Batzar Nagusiek atzera bota dabe, baita be, EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaiak Petronorri enplegu-erregulazino espedientea kentzeko eskatzeko ekimen bateratu bat, justiziak “justifikazinoarik bakoizat” jo dauelako 354 langileri maiatzean apliketan hasi jaken erregulazino-espeditentea.**

(Bilbon, 2021eko irailaren 9an). Bizkaiko Batzar Nagusiek ikasturte parlamentarioari berrekin deutse gaur, Ekonomia Sustatzeko Batzorde bategaz, eta bertan arauz besteko proposamen bi eztabaidatu dira. Alde batetik, oposizino taldeek Bizkaiko Donejakue Bidea bultzatzea eskatzen eban, eta, bestetik, Aldundiak, Petronorri, maiatzean apliketan hasi zan ERTEa kentzeko eskatzea gura eban.

Gai-zerrendako lehenengo puntuan, Bizkaiko Talde Berezia-PPk, arauz besteko proposamen batean, Donejakue Bidea Lurraldetik igarotetan “sustatzeko eta bultzatzeko” kanpaina bat egitea defendidu dau. Kanpaina horretan, Iparraldeko edo Kostaldeko Bideak eta Bide Ahaztuak edo Donejakue Bide Zaharrak bat egiten dabe. Testuak beste eskari bat jasoten eban, Lurraldetik igarotetan ibilbide horreen seinaleztapena “barritzeko eta indartzeko”.

Elkarrekin Bizkaiaren hainbat zuzenketa-eskeren bidez, ekimena osatu egin zan, sustapen-ekintza horreek udalakaz eta “Donejakue Bidearen lagunen hainbat alkattegaz” lankidetzan egin eitezana, eta hirugarren puntu bat gehitu zan, Bizkaiko Bidea hobetzeko eta egokitzeko lanaren “berrikusketa” bat egiteko asmoz, Batzar Nagusiek 2014. urtean adierazo ebanaren gainean, talde morearen berbetan, esku hartzeko behar zehatzak atzemoteko.

Batzarretako talde guztiek batera defendidu dabe Donejakue Bidea “aktibo garrantzitsua” dala garapen ekonomikorako eta lurraldean aberastasuna sortzeko, kultur ondarea balioesteko eta turismo jasangarria garatzeko, besteak beste. Halanda be, Batzar Nagusietako Eusko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek uko egin deutse azken testuari, kultur proiektu honen “lidgeoa”, hareen ustez, Eusko



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Jaurlaritzako Turismo Sailarena izan behar dalako, erakundeen arteko lankidetza indartzeari kalte egin barik.

Lan bateratu horren barruan, Foru Gobernua osatzen daberen taldeek, turismoko “aktibo garrantzitsu” hori erabilita Gasteizko Gobernuak Bizkaiko erakargarritasuna hobetzeko Gobernu Zentralaren aldetik jasoko dituan “5,5 milioi euro” aitatu ditue, Victor Trimiño sozialistak gogorarazo dauenez. Aldundiak, ganera, Bidea bultzatzeko hainbat neurri aurreikusten ditu daborduko, Mikel Bagan jeltzaleak ganeratu dauenez, Bizkaiko mendi-ibiliak eta ondare erlijiosoa sustatzeko tokiko erakundeek ekintzak babesteko foru dekretu bat, beste batzuen artean.

## PETRONOR

Petronorreko ERTEak 354 behargini eragiten deutse maiatzaren 3tik aurrera, eta ikasturte politiko barruko lehenengo saioan bere lekua izan dau Bizkaiko Batzarretan, EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia taldeek batera aurkeztutako arauz besteko proposamen baten bidez, besteak beste, “personak, ingurumenaren eta instalazioen segurtasunagaitik” berau kentzeko eskatu dabe.

Oraingoan, Talde Berezia-PP Bizkaiak bat egin dau Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeakaz, Petronorri eskaera hori egitea atzera botateko. Enpresa horrek erregulazio-espedita bat aurkeztu eban, eta, proposamena egin dabenek gogorarazo dabenez, Bilboko 8. Lan-arloko Epaitegiak “justifikazio bakoizat” jo eban. Foru Gobernua babesten daberen taldeek “legezko bideak” errespetetea defendidu dabe, hau da, negoziazio kolektiboa eta alderdien arteko alkarrizketea eta akordioa, enpleoa babestea “lehentasunezko” helburua izan behar dauen soluzio bat lortzeko, Trimiñoren berbetan.

Petronorreko ERTEak, hasiera batean, urrian eukan iraungitze-data, baina Mikel Baganek batzordean adierazo dau “uste dauela”, joan dan astelehenean, irailaren 6an, ezagutu zan epaia behin-behinean betez, “irailaren 8tik aurrera ERTE barruan egozan behargin guztiak desafektatu dirala”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA REANUDAN SU ACTIVIDAD PARLAMENTARIA DEBATIENDO SOBRE EL CAMINO DE SANTIAGO Y EL ERTE DE PETRONOR

- La comisión de Promoción Económica desestima una proposición no de norma del grupo Mixto-PP Bizkaia para que la Cámara vizcaína pida a la Diputación foral un impulso al Camino de Santiago en el año del Xacobeo.
- El Parlamento de Bizkaia rechaza también una iniciativa conjunta de EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia para instar a Petronor a retirar el ERTE, después de que la justicia haya declarado “injustificado” el expediente de regulación que comenzó a aplicar en mayo a 354 trabajadores y trabajadoras.

(Bilbao, a 9 de septiembre de 2021). El Parlamento de Bizkaia ha reanudado hoy el curso parlamentario con la celebración de una comisión de Promoción Económica en la que se han debatido dos proposiciones no de norma. Por un lado, los grupos de la oposición pedían impulsar el Camino de Santiago a su paso por Bizkaia, y, por otro, querían que la Diputación instase a Petronor a retirar el ERTE que comenzó a aplicar en el mes de mayo.

En el primer punto del orden del día, el Grupo Mixto-PP Bizkaia ha defendido en una proposición no de norma elaborar una campaña de “promoción e impulso” del Camino de Santiago a su paso por el Territorio, en el cual confluyen el Camino del Norte o de la Costa y el Camino Olvidado o Camino de Santiago Viejo. El texto incluía otra demanda para “renovar y reforzar” la señalización de estas rutas a su paso por el Territorio.

A través de varias enmiendas de Elkarrekin Bizkaia, la iniciativa había sido completada para que dichas acciones de impulso se hicieran en colaboración con los ayuntamientos y las diferentes ‘asociaciones de amigos del Camino de Santiago’, y se había añadido un tercer punto con el propósito de hacer una “revisión” del trabajo de mejora y acondicionamiento del Camino en Bizkaia sobre lo que las Juntas ya se manifestaron en el año 2014, según la formación morada, de cara a detectar necesidades concretas de intervención.

Todos los grupos junteros han defendido en bloque que el Camino de Santiago es un “importante activo” para el desarrollo económico y la generación de riqueza en el territorio, la valorización del patrimonio cultural, y el desarrollo de un turismo



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

sostenible, entre otras cosas. Sin embargo, los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han rechazado el texto final puesto que el “liderazgo” de este proyecto cultural debe recaer, según ellos, en la consejería de Turismo del Gobierno vasco, sin detrimento de que se refuerce la colaboración interinstitucional.

Dentro de este trabajo conjunto, los grupos que sustentan al Gobierno foral han mencionado los “5,5 millones de euros” que el Ejecutivo de Gasteiz recibirá del Gobierno central para mejorar el atractivo de Bizkaia utilizando este “importante activo” turístico, ha recordado el socialista Víctor Trimiño. La Diputación ya contempla, además, diferentes medidas para impulsar el Camino, ha añadido el jeltzale Mikel Bagan, como un decreto foral para apoyar acciones de entidades locales u otro para promover el senderismo y el patrimonio religioso de Bizkaia.

## PETRONOR

El ERTE de Petronor que, desde el 3 de mayo afecta a 354 trabajadores y trabajadoras, ha tenido su espacio en la Cámara vizcaína en la primera sesión del nuevo curso político por medio de una proposición no de norma presentada conjuntamente por los grupos EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia que han pedido entre otras cosas, la retirada del mismo “por motivos de seguridad de las personas, el medio ambiente y las instalaciones.”

En esta ocasión el grupo Mixto-PP Bizkaia se ha unido a Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos para rechazar esta petición a Petronor, empresa que presentó un expediente de regulación que, según han recordado los proponentes, fue declarado recientemente “injustificado” por el Juzgado de lo Social número 8 de Bilbao. Los grupos que apoyan al Gobierno foral han defendido que se respeten los “cauces legales existentes”, es decir, la negociación colectiva y el diálogo y el acuerdo entre las partes para lograr una solución que debe tener como objetivo “prioritario” proteger el empleo, según Trimiño.

El ERTE de Petronor tenía en un principio fecha de caducidad en octubre aunque Mikel Bagan ha insinuado en la comisión que “cree” que, en cumplimiento provisional de la sentencia que se conoció el pasado lunes, 6 de septiembre, “se va a proceder a la desafección total de los trabajadores y trabajadoras que permanecían en el ERTE desde el 8 de septiembre”.